

1997KO URRIAREN 2KO URJENTZIZKO BILKURA

Lizartzan, mila bederatziehun eta laurogeitamazazpiko urriaren bian, gaueko bederatziak direnean, Alkatea: Jose Antonio Mintegi Arrate; Udalkideak: Ima Zubeldia Luloaga, Juan Manuel Iburguren Etxeberria, Marian Olano Zabala; Ramon Bengoetxea Altuna, Manuel Barriola Tolosa eta Jose Arzadun Egiluz Zinegotziak ez dira bilkurara azaldu, nahiz eta jakinean egon, eta ez dute inolako arrazoirik eman; Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia.

1.- URJENTZIZKO BILKURARAKO ARRAZOIA

Alkateak, hitza harturik dio: Tratatu nahi den gaia benetan garrantzi handi eta presazkoa denez, Bilkura honetan, urjentiz gai hau tratatzea proposatu du.

Proposamena, aho batez onartu da.

2.- HERRI BATASUNAREN MAHAI NAZIONALEKO KIDEEEN AURKAKO EPAIKETARI BURUZ MOZIOA

Datorren urriaren 6an hasiko da Herri Batasunaren Mahai Nazionaleko kideen aurkako epaiketa Madrilgo Tribunal Gorenean. Euskal Herrian demokraziarako oinarrien proposamen bat baino ez den "Alternatiba Demokratikoa" defendatu, hedatu eta ezagutzera emateagatik epaitua izango da beraz, indar politiko legezatu baten zuzendaritza politiko osoa, Fiskalak talde armatuarekiko laguntzat joaz Mahai Nazionaleko kideen bakoitzarentzat 8 urtetako kartzela zigorraren eskaera luzatu duelarik.

Aipaturiko proposamen politikoarekin bat etorri ala ez, demokrata guztion eginkizuna da justizia oinarritzat duen edozein proposamen politikoren alde jardun ahal izateko askatasuna defendatzea. Adierazpen Askatasuna auzitan jartzea ezezik, ideia eta helburu politikoak defendatu eta gauzatu ahal izateko aukera eta eskubidea ere ukatzen du aipaturiko epaiketa politiko moztortuak.

Esandakoaz gain, Euskal Herrian bizi dugun egoerarekiko ez du ezer onik ekarriko epaiketa horrek. Alderantziz bai ordea, bakebideak urrundu, euskaldunon elkarbizitza eta adiskidetzeari gehiago oztopatu eta gatazka politikoaren luzapen eta ondorio mingotsak biderkatzen lagunduko luke kartzela zigorraren epaiak. Horregatik, idatzi hau sinatzen dugunok, ondoko mozio hau onartzeko eskatzen dizuegu premia larriz.

- 1.- Adierazpen Askatasun eskubidea errespetatu eta bermatu dadila exigitzen dugu.
- 2.- Herri Batasunaren Mahai Nazionalerako aurkako prozesamendua gaitzesten dugu eta etorkizuna iluntzea baino ez duela ekarriko adierazi nahi dugu. Izan ere, ideia politikoaren kriminalizazioa ez da deus konpontzeko bidea.
- 3.- Alternatiba Demokratikoaren aldeko defentsa zigortzea errefusatzen dugu erabat, aukera politiko guztiak askatasun osoz defenditzeko ahalmena bermatu behar dela uste baitugu.
- 4.- Espainiar estatuko Tribunal Gorenari, Mahai Nazionalerako kide guztien ERRUGABETASUN EPAIA emateko deialdia egiten diogu.
- 5.- Justizian eta euskal gizartearen borondatearen errespetuan oinarritutako pake eta demokraziarako etorkizuna eskuratu nahi dugu eta horretarako ezinbestekotzat jotzen dugu inor baztertzeko ez duen elkarrizketaren bideari ahalik eta azkarren ekitea.

Alkate Jaunak, hitza harturik, mozio horri beste puntua hau eranstea proposatu du:

- 5.- Herri Batasunaren Mahai Nazionalaren epaiketa irauten duen bitartean, Udal Bilkura eta Batzordeak etetea, bakarrik, Udalaren ustetan urjentzizkoak diren gaiak tratatuaz.

Herri Batasunaren Mahai Nazionalaren epaiketa dela eta, aurkeztutako mozioa, aho batez onartu da.

Eta hitzegiteko beste gairik ez dagoenez, Alkateak, Batzarra amaitutzat eman du, gaueko bederatiak eta laurden direnean.